

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren jarduera aurrera eramán ahal izateko hainbat funtsezko jarduera ezarri beharko ditugu. Jarduera bakoitzak hari espezializatutako langilegoa beharko du, eta hurrengo ilaretan zehaztuko dugu beharrezkoa den informazioa.

Langile guztiak Ibaiondoko gazte espetxean dauden gazteak izango dira, hauek gure enpresak eta eusko jaurlaritzak ordaindutako ikasketa batzuen bidez lortuko dituzte ezagutzak eta espetxeko zigorra bukatu ondoren gure enpresaren barne izateko aukera edukiko dute.

Administrazio orokorraz, hau da, departamendu guztien kontrolaz Oinatz, Mikel eta Xabat arduratuko dira, baina departamendu bakoitzak hari egokitutako administratzaile bat edukiko du, adibidez, WebGunearen gestio orokorra Oinatz esku egongo da.

WebGunearen departamenduak hiru zati edukiko ditu; Ziber-seguritateari eskainitakoa, Web programatzaile eta diseinu web-ari eskainitakoa eta azkenik marketing arloa. Langileak lehen aipatutako gazteak izango dira, baina arlo bakoitzari egokitzeko ikasketa ezberdinak egingo dituzte.

Marketing globalari dagokionez, administratzailea Xabat izango da, eta arlo hau bi zatietan banatuko dugu; Enpresaren kanpo-irudia gestionatuko duen taldea, merkatua eta bezero potentzialak aztertuko dituen taldea.

Oinatz izango da, eta arlo hau bi zatitan banatuko dugu; Paketeak dendatik etxeraino eramango dituen taldea eta Etxetik dendatara bueltatutako produktuetaz arduratuko dena.

Logistikaren arduraduna Oinatz izango da eta departamentu hau hiru sekzioetan banatuko dugu; Bidalketa-deboluzio sekzioak eta Produktuen jarraipena.

- Bidalketa-Deboluzio sektorean bi arlo daude; bidalketa eta deboluzioak, batzuk produktuak dendetatik etxeetara eramango dituzte, besteek etxeetatik dendetara.
- Produktuen jarraipena sektoreak bi arlo edukiko ditu; dendekin koordinatuko da produktuak jaso ahal izateko, beste arloak produktuen deboluzioetaz eta hauek edukitako arazoetaz arduratuko da, eta beharrezkoa balitz dendekin kontaktuan jarriko liratezke.
- Entrega egiteko materiala baldintza egokietan dagoela zihurtatuko duen arloa.

Giza baliabideen Arloko arduraduna Xabat izango da eta bi arlo izango ditu; Langile berriei lanbidea erakusten jarduko den taldea eta bestelako giza baliabideak gestionatuko dituen taldea.

Enpresaren ekonomiaren departamenduaren administratzailea Mikel izango da eta arlo bat edukiko du; enpresaren gestio ekonomikoko saila.

Harreta zerbitzua Xabaten esku egongo da.